

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BERANTEVILLAKO UDALA

Jendaurrean jartzea eta kobratzea Berantevillako industrialdeko ur horniduraren eta saneamenduaren tasa – 2021eko bigarren lauhilekoa

I. Espedientea jendaurrean egongo den aldia:

Egin dira Berantevillako industrialdea edateko urez hornitzeko eta saneamendurako tasari dagozkion 2021eko ekitaldiko bigarren lauhilekoko kontribuzio erroldak, bai eta alkatearen urriaren 14ko 133/2021 dekretuaren bidez onetsi ere.

Errolda jendaurrean egongo da hamabost egunez, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera, eragindako zergadunek errolda aztertu eta, hala badagokio, egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak egin ahal izateko.

Kontribuzio erroldak jendaurrean jartzeak haien likidazioen jakinarazpen bateratua egitea du helburu, hala egin behar dela xedatzen baitute Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 98. artikuluan 3. apartatuan eta Kudeaketa, Dirubilketa eta Ikuskatzearen Udal Zerga Orokorrak 2.1 artikuluan.

Interesa dutenek espedientea udal bulegoetan aztertu ahal izango dute. COVID-19aren hedatzea saihesteko hartutako segurtasun neurriak direla eta, hitzordua eskatu beharko da alde zurretik, 945337059 telefonora deituta edo aberantevilla.secretaria@ayto.araba.eus mezu elektronikora idatzita.

Erroldak eta haiei erantsitako likidazioak onesten dituen egintzaren aurka berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio alkateari, hilabeteko epean, haiek jendaurrean jarri eta hurrengo egunetik aurrera.

II. Kobrantza aldia:

Borondatezko aldian ordaintzeko epea bi hilabetekoa izango da; hain zuzen ere, 2021eko urriaren 28tik 2021eko abenduaren 28ra.

Borondatezko aldian ordaintzeko epea amaiturik, ordaindu ez diren kuotetarako, betearazteko aldia hasiko da berez eta besterik gabe. Horrek berekin ekarriko du berandutze interesak eta dagozkien errekarguak eskatzea, Zergen 6/2005 Foru Arau Orokorrak 26. eta 28. artikuluetan ezarritakoaren arabera, bai eta premiamendu prozeduraren kostuak ere, bidezko denean.

Banku erakundeetan helbideratutako ordainketak 2021eko azaroaren 15ean igorriko dira.

Helbideratu gabeko ordainketetarako, zergadunei udalaren bulegoetan entregatuko zaie ordainagiria, dirua Kutxabankeko bulegoan edo transferentzia bidez sar dezaten.

Zergadunei ohartarazten zaie komenigarria dela beren zerga zorrak banketxe edo kutxetan helbideratuta izatea. Halaber, nola banku helbideratzeetako altak edo aldaketak hala hurrengo jakinarazpenetarako helbide aldaketak Berantevillako Udalean izapidetu beharko dira.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Berantevilla, 2021eko urriaren 14a

Alkatea

MARIO PEREA ANUNCIBAY